

Anterorekin batera, jaiak!

Jai giro nagusian, Anteroren eta herriko koadrilen jaitsierek emango diete hasiera Lekeitioko Sanantolin jaiak

Urtero legez, Anteroren jaitsierarekin batera hasiko dira Bizkaiko kostaldeko herri honetako jaiak. Hain zuzen ere, Angelusa, kanpai jotzea, txupinazoa eta Anteroren jaitsiera etzi arratsaldeko 20:00etan izango dira, Lekeitioko jaiak hasiera emateko. Oso ekitaldi herrikoia da, eta jende ugari izan ohi da.

Anteroren jaitsiera lehen aldiz 1980. urtean egin zen. Antonio Zamora abade zenari bururatu zitzaion Anteroren jaitsiera egitea. Honen jatorria Gasteizko Zeledonon jaitsieratik dator. Bestalde, Pedro Zabala hasieratik aritu izan da Anteroren jaitsiera antolatzen.

Horrez gain, Antonio Zamora apaizak umeen agintaritzahalmenaren ezaugarria ematea, umeen jaietako erregina izendatzea eta danborrada egitea pentsatu zuen. Hauek Antiguako Amaren egunean egiten ziren, eta umeak izan ohi ziren egun horretan nagusiak. Nola bait, egun horretan haurrak herriko agintari bihurtzen ziren, alkate, zinegotzi eta guzti.

Danborrada Anteroren jaitsierarekin batera hasi zen, baina Antonio Zamora hil zenean bertan behera gelditu zen. Abadeari omenaldi bat eskaintzeko, berriro antolatu zen. Mari Barruetabeñarekin batera, talde



Anteroren jaitsiera 1980. urtean egin zen lehen aldiz.

bat zegoen danborradaren prestakuntza aurrera eramateko.

Horrela, mojak arduratzen ziren jantziak garbitu, konpondu, gorde eta lisatzeaz. Baina orain dela hiru urte inguru egin zen azken aldiz.

Antero xelebrea

Anteroren jaitsierako pertsonaia ez da asmatutakoa. Izan ere, Antero herriko gizon xele-

bre eta ezaguna zen, arrantzalea. Kosme Damian Likona Bengoetxea zuen izena. Lekeitioko *Anteron txamarrotia*, *Sinkerren bibotia*, *haretzek ei dauko*, *preso tximinoia*... abesti ezagunari aipatutako arrantzaleak eta bere lagun Sinkerrek eman zioten izena.

Dirudienez, Sinkerrri ezizen hori jarri zioten behin Singer markako makina bat konpondu zuelako. Izan ere, oso trebea zen horrelako kontuetan. Ante-

roren jaitsieran agertu ohi den manikia Antonio Zamorak Donostiatik ekarri zuen. Honek bizarra, txapela, kaiku zuriak, mahozko prakak eta abarketa zuriak eramaten ditu soinean.

Negurako elizako kanpandoretik behera jaisten dute Antero, eta festetarako gora igotzen dute berriz. Handi samarra denez eta pisu handia duenez, nahiko lan ematen du gora eta behera ibiltzeak.

Gainera, kontuan hartu behar

da kanpandorreko eskailerak oso estuak direla, eta horrek zaildu egiten du antolatzaileen egin beharra. Beraz, Antero jaietarako prest izatea neketsua da.

Ekitaldi herrikoia

Oso ekitaldi herrikoia izaten da eta plaza jendez gainezka izan ohi da. Kanpai jotzearekin, txupinazoarekin eta txarangak *Anteron txamarrotia* jotzearekin batera, txipiroi arrantzale hori kanpandoretik udaletxeko aretora jaisten da kable baten bidez, eta jaiak hasiera ematen.

Ondoren, Esteban Eizagirrek Antero hezur-haragizko bihurtzen du (hau manikia bezala jantzita ateratzen da). Eizagirrek zazpi edo zortzi urte inguru daramatza Anteroren papera egiten. Udaletxeko balkoitik eskailera baten bidez jaisten da. Arrantzale otarra gozokiz beteta eramaten du, eta haurren artean banatzen ditu.

Horrela, jendearen artean desagertzen da jaiak amaitu arte, berriz igotzeko unea iritsi arte, alegia. Hain zuzen ere, irailaren 8an ezkututzen da Antero, Antiguako Amaren egunean, gaueko 12:00etan. Horrela esango diete agur jaiak aurtan ere. Ostean, Koitadua izango da.

Bide Ondo

- ITURGINTZA • BEROGINTZA • GASA
- BAINUGELARAKO ALTZARIAK
- ETA OSAGARRIAK •

Atea, 28 ☎ 94 624 30 33 LEKEITIO

Beleh

UMEENTZAKO ETA
GAZTEENTZAKO ERROPA DENDA
PREZIO HOBARENAK

Zumatzeta, 3 • Tel.: 94 624 34 72 • 48280 LEKEITIO

Charter OKAMIKA

M^a Diaz de Haro, 4
Tel.: 94 624 36 71
LEKEITIO
Santa katalina, 2
Tel.: 94 684 04 94
LEKEITIO

SUPERMERKATUA



jai zoriontsuak opa dizkizue guztioi!

Espezialistak produktu freskoetan
Preziorik onenak urte osoan zehar

APARKALEKUA DOHAINIK

Sabino Arana, 10 - Tel.: 94 684 31 67 - LEKEITIO

Uskola

- ✓ Eraikin eta Lokaletako Arozgintza
- ✓ Zerrailgintza
- ✓ Dekorazio eta Akabera



ArozTegia, s.l.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Otxoa urkiza, 1
48280 LEKEITIO

Tallerra: 94 684 19 02
Mugikorra: 600 41 49 87

Mingorri



TABERNA

**Musika herrikoia
eta giro jatorra**

Buenaventura - Zapirain
LEKEITIO